

Lakuntzako Udal-zineman, 1983.eko otsailaren 19an, Blas Alegria euskal idazle zenaren jaiotzako mendeurrena ospatuz, arratsaldeko lauretan bildu da Euskaltzaindia batzarre irekian. Etorri dira: L. Villasante euskaltzainburua, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. Apecechea, J. A. Arana, P. Diez de Ulzurrun, M. Lasa, J. L. Lizundia, M. J. Urmeneta eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. Haritschelhar eta P. Lafitte jaunek ezin etorria adierazi dute.

Sarreran "Agur Jaunak" abestu dute Lakuntzako kantariak.

Lizartzako Kasiano eta Txomin Garmendia bertsolariek egin dute gero festaren eta Blas Alegria zenaren aipamena bertsotan.

Juan M. Ganboa herriko alkate jaunaren ongi-etorriarekin hasi da batzarra. Mahai buruan, E. Ulayar eta L. Igeltz hizlariekin batera eseri da.

Pragan, Norbert Tauer euskaltzain ohorezkoa hil delako berria eman du J. M. Satrustegik bere bizi eta lanen aipamen laburra eginez.

Era berean, J. San Martin jaunak Fernando Artola "Bordari" euskaltzain urgazle zenduaren goratarrea irakurri du.

Goizeko bilkuraren berri

Eguerdia aurrean egin dute euskaltzain osoek hileroko bilera, bi gai nagusi egitarauan direla: 1) Diruzaintzaren 1982.eko balantzea. J. J. Zearretak aurkeztu du batzordearen txostena. Oro-har, 89.893.962 peseta izan da gora-behera guzien kopurua. Dagoen dirua ia hamalau milioi, eta existentzien atalean hogeita bi milioi. Nabarmenena, behar bada, liburuen salmenta izan da: 56.684 ale, zortzi milioi pasatxoren balioarekin. Patrimonia aipatu da, baina ez da erraza neurketa zehatza egitea. Zenbat balio, esate baterako, "Azkue Biblioteka-ko" liburuketak?

2) Izendapenak. Bi urtetik behin egiten diren urgazle eta ohorezkoen izendatzeaz ez da zehaztasunetan sartu Euskaltzaindia. Egin beharra ikusten da eta arauetako dagozkion artikuloak gogoraraziz datorren batzarrerako deia egitea erabaki da.

Txostenak

Eugenio Ulayar, Lakuntzako erretore jaunak aztertu du Blas Alegria zenaren bizia. Euskaltzale sutuari denbora txarretan bizitzea gertatu zitzaion, eta hainbat aldiz saritua izan arren, bere lan gehienak galduak ditugu. "Olave" saritzaleen artxi-

boetan ez da bere lanik agertu, bere ahaideek zaku bat bete izkribu itsasora bota zuten Getarian, eta Lakuntzan zirenak, erre.

Txistularien saioak erdibitu du Ulayar jaunaren hitzaldia, epai mahaikoek eta beste idazle batzuk Blas Alegriari buruz zer zioten esanez amaitzeko. Idazlari trebea bezain hizlari zorrotza agertzen da omendua.

Luis Igeltz jaunak Elizako artxiboan dauden liburu eta esku-izkribu euskaldunen berri eman du. Sermoien artean badira 47 Alegriarenak. Euskarari iraunarazteko gomendio beroa eginez amaitu du txostena.

L. Villasante euskaltzainburuaren hitzek batzarra Sakanan egitearen garrantzia azpimarratu dute. Euskaltzaindiaren lana adierazi du gero eta Iruñean datorren urtean egitekoa den Gramatika Kongresoaren berri ofizialki eman du.

Lakuntzako Udalak herriko Seme-kuttun izendatu duela Blas Alegria, jakinera zi du alkateak, eta bere egunean kale bati haren izena emango zaiola.

Eta kantarien azken saio batekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.º SATRUSTEGI